



ZERPA2013

ZERBITZU PUBLIKO AURRERATUEN DIREKTORIOA

1. SISTEMAK BETE BEHARREKOAK

Hainbat formatu eskaintzen dira:

- Microsoft ACCESS 2003/2010 (.mdb/.accdb)
- OpenDocument kalkulu-orria (.ods)

Lehen kasuan (Microsoft-ACCESS) aipatutako softwareko lizentzia bateko behar duzu. OpenDocument kalkulu-orriak irakurri ahal izateko, OpenOffice paketeak doako eran deskargatu behar duzu; 2007 Excel eta ondoko bertsioekin ireki ditzakezu ere.

2. DESKRIBAPENA

2.1 ZERPA2013 (Zerbitzu Publiko Aurreratuak) Euskal Autonomia-Erkidegoko administrazioetako erakunde eta sektore publikoko atarietan eskaintzen diren zerbitzu, prozedura eta izapideak artxibatu, sailkatu eta aldizka eguneratzen dituen biltegia da.

2.2 DIREKTORIOAREN EREMUA ETA ESTALDURA. Ikerketa eta bilketa egiteko esparru gisa Eustateko Herri-administrazioen 2010eko behin-behineko gidaliburua erabili da. Horrek, **1.164 erakunde** hartzen ditu. Ez dira sartu Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten Estatuko Administrazio Orokorreko herri erakundeak ezta unibertsitate kanpoko ikastetxe publikoen zerbitzu, prozedura eta izapideen informazioa ere. 2013/2014 ikasturtean zeuden 870 ikastetxeetatik, 141 web-gunea zuten (berezkoa, artekatuta edo beste atari batean txertatuta)¹. Azken hauek ATARIKA2013 sartu dira aurretan.

2.3 INFORMAZIOA GAURKOTZEA. Informazioa biltzeko eta esteka-erreferentziako aldia unitate bakoitzean adierazten da. Aldi hori, prozeduren eta izapideen erdiarentzako gutxi gorabehera 2010eko irailaren 13tik 2011ko otsailaren 25era arterakoa izan zen; gainontzekoaren % 17a , 2012ko irailaren 19a eta azaroaren 16a bitartean eta beste % 30a, azaroaren 2014ko azaroaren 14tik 2014ko martxoaren 25era bitartean eguneratu zen. Zerbitzuek eta edukiek aipatutako lehen aldia dute aldi denborazko erreferentzia bezala. Urtero gaurkotze partzialak egingo ditugu eta osoa bost urtean behin.

¹ Ikusi '[Unibertsitatez kanpoko ikastetxeen helbidetegi orokorra](#)' 2012-2013ko matrikulako datuekin eguneratua. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Eusko Jaurlaritza.

2.4 SARTUTAKO UNITATEAK. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeek erabilitako **922** atarien eta atari horiek eskaintzen dituzten **11.220 zerbitzu, prozedura eta izapideen informazioa**, inaktibo edo iraungita zeuden kontuan hartu gabe (erantsita doaz hasiera eta iraungitzeko datak). Kontuan eduki behar da erakunde batek atari batzuk erabil ditzakeela eta erakunde batzuek atari bakar bat; aukera guztiak aztertu dira.

2.5 ALDAKETEN HISTORIKOA. 2012 eta 2013ko edizioetan, osagai historiko edo longitudinala mantentzen da, urte horietan egindako eguneratzean sartutako unitate guztientzat. 2010ean eta 2011n bildutako informazioa lotuta mantentzen da eta, horrela, 2012. Eta 2013. urteetan aldaketarik egonez gero, ikusteko aukera egongo litzateke. Horrez gain, egoera-eremu bat existitzen da ikuskatutako unitateentzat. Horrek adierazten du unitatea badagoen, baja eman zaion edo alta den, baita aldaketak jasan baditu ere.

2.6 URL-EN IRAUNALDIA. Informazio-bilketa egin den datetan, atariak, zerbitzuak, prozedurak eta izapideak zituzten URLak sartu dira eta, beraz, ez da ziurtatzen kontsulta egingo den unean indarrean jarraituko dutenik. Egiaztatu da zerbitzuen eta prozeduren izenak iraunkortasun-maila handiagoa dutela –gehienetan zentsuan sartutako erakundeek eskaintzen dituzten bezala sartu zirenak eta, beraz, funtsezko ‘bilaketa-elementu’ bihurtu dira.

2.7 DATU-BASEAREN EGITURA. ZERPA2013 datu-base formatuan egituratuta dago (ACCESS), eta ATARIKA2013, atari publikoen direktorioa, bertakotzen du modu erlazionalean. Perspektiba historikoari eusten dionez gero, erregistroak bikoiztuta agertzen dira tauletan denboran eguneratuak izan direnean eta, beraz, datu-basearenak ez diren kanpoko eragiketekin erabili behar dira, eguneratze-eremuekin (LIS_AREF eta LIS_ACTU) batez ere.

Atari, zerbitzu eta prozeduren formularioak programatu dira. Horiei esker, identifikatu eta sailkatzeko aldagaien araberrako berriarazko aukeraketak modu errazean egiteko aukera dago; kontsulta hauek independenteak dira beraien artean. Zerbitzu eta prozedura formularioaren kasuan, kontsultetan bajak ere ikusteko aukera gehitu da.

Bi datu-base eskura daitezke: bat euskaraz eta beste bat gaztelaniaz.

2.8 LAGUNTZA TEKNIKOA. Eskaintakoez gain bestelako formaturik edo argibiderik behar izanez gero edo eduki-ekarpenik edo ekarpen metodologikorik egin nahi izanez gero, euskarri teknikoko zerbitzuarekin jar zaitezke harremanetan, posta elektronikoa hau erabiliz:

manu-rodriquez@ej-gv.es

EUSKO JAURLARITZA
Herri Administrazio eta Justizia Saila
Zerbitzu Zuzendaritza
Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 64 26 – Fax 945 01 90 29

3. ZERBITZU ETA PROZEDUREN BILKETARI BURUZKO OHARRAK

3.1 Ez dira sartu atarietan agertzen ez diren zerbitzu eta prozedurak (back office).

3.2 Atari batzuetan ez dira zerbitzuak ezta prozedurak ere zentsatu.

3.3 Gehienetan atarietan agertzen ziren zerbitzuen eta prozeduren izenak errespetatu dira. Gaztelaniazko edo euskarazko itzulpenik ez zegoenean, egin eta gehitu da.

3.4 Zerbitzuak edo prozedurak datu-baseetan edo ad-hoc katalogoetan eskaintzen direnean, katalogora sartzeko URLa gehitu da. Zerbitzu edo prozedura batzuek URL berdina eduki dezakete ere, Web-orri berdinean daudelako

3.5 Ez dira erakunde baten berezko zerbitzutzat edo prozeduratzat hartu beste baten zerbitzutarako edo prozeduretarako loturak eta ahaleginak egin dira kasu berbera ez jasotzeko erakunde bereko atari bat baino gehiagotan eskaintzen denean.

3.6 Ez dira zerbitzu, prozedura eta izapideak kontuan hartu, bakarrik aplikatzeko denboraldiak desberdinak direnean; kasu guztietan berriki denboraldiko unitateak erroldatuko dira.

3.7 Zentsuan sartu dira bilketa egin den unean indarrean ez zeuden zerbitzu eta prozedurak; kontrola eta sailkapena egiteko, iraungitze-datak gehitu dira datu-basean.

3.8 Zerbitzuen eta prozeduren sailkapena egin da honi erantsita doan administrazio elektronikoen terminoen glosategian dauden definizioen (begira 6. atalean), ikusitako informazioaren eta atarien sailkapen propioen arabera.

4. ZERPA2013 DIREKTORIOAREN EDUKIA

4.1 Gaurkotzea, identifikatu eta sailkatzeko aldagaiak

Datu-baseek atal bereiztuak dituzten bi taulak dituzte: Erakunde publikoek erabilitako atari publikoen direktorioa eta zerbitzuen eta prozeduren direktorioa, bakoitzak bere identifikazioekin eta sailkatzeko aldagaiekin baina eremu gakoekin horien arteko lotura eduki ahal izateko.

4.1.1 Identifikazio-aldagaiak

Erakunde zenbakiari, Web zenbakiari eta prozedura edo zerbitzuari dagozkien eremu-gakoez gain, euskarazko eta gaztelaniazko izena, URLa eta, kasu batzuetan, azalpen txiki bat.

4.1.2 Sailkapen-aldagaiak

Atarietan hala eskatzen zirenean, zerbitzua edo prozedura aplikatzeko hartzaile-mota eta denbora- eta geografia-esparrua gehitzen dira. Atal-mota eta arlo funtzionala dira sailkatzeko aldagai nagusiak. Halaber, prozedura edo zerbitzua eskuratzeko aurretiko kontrolik behar den adierazten duen eremu bat gehitu egiten da (sinadura elektronikoaren beharra, sartzeko pasahitzak, erakunderen bereko txartelak, etab.).

4.1.3 Gaurkotze-aldagaiak

ZERPA2013an eskainitako unitateen trazabilitate eta gaurkotzea jasotzen dituzten eremuak bost dira: galdeketa- edo bilketaren data, erreferentzia urtea, eguneratzen den ala ez (gaurkotze-adierazlea), eragiten dion mugimendu-mota (edo jarraitzen badu, besterik ez) eta, aldaketaren bat agertuz gero, horren sortzailea den gertaera.

4.2 Atari publikoen direktorioa Zerbitzu eta prozeduren direktorioarekin fitxategi bat egitea

CAT_NUMENT / LIS_NUMENT eta CAT_NUMWEB / LIS_NUMWEB identifikazio-aldagaiekin lot daitezke bi fitxategiak. ACCESS datu-baseetan lotuta agertzen dira jada.

5. FITXATEGI ETA EZAUGARRIEN GLOSARIOA

5.1 ZERPA2013: fitxategiaren deskripzio eta etiketak

5.1.1 Identifikazio-aldagaiak

1. LIS_NUMENT	Erakunde publikoaren zenbakia (ATARIKA2013arekin lotura)
2. LIS_NUMWEB	Webaren hurrenkera-zenbakia (ATARIKA2013arekin lotura)
7. LIS_CLAVEPRO	Prozedura, izapide edo zerbitzuaren gakoa (Gako nagusia)
8. LIS_NUMPRO	Prozedura, izapide edo zerbitzuaren hurrenkera-zenbakia
9. LIS_DENO_C	Prozedura, izapide edo zerbitzuaren izena gaztelaniaz
10. LIS_DENO_E	Prozedura, izapide edo zerbitzuaren izena euskaraz
11. LIS_URL_P	Prozedura, izapide edo zerbitzuaren URLa

5.1.2 Sailkapen-aldagaiak

3. LIS_DIR_NOMBRE	Erakunde publikoaren izena
4. LIS_DIR_COD_ENT_TIPORG2	Erakunde publiko-mota
5. LIS_DIR_COD_ENT_TIPORG1	Erakunde publikoa zein entitate publikokoa den
6. LIS_DIR_COD_ENT_TH	Erakunde publikoa zein lurralderen menpe dagoen
12. LIS_DESCR_P	Prozedura, izapide edo zerbitzuaren deskribapena
17. LIS_TDESTB	Hartzaile-mota
18. LIS_AMBESP	Espazio-esparrua
19. LIS_FECHIN	Prozedura, izapide edo zerbitzuaren hasiera-data
20. LIS_FECHCA	Prozedura, izapide edo zerbitzuaren iraungitze-data
21. LIS_AREAPRO3	Prozedura, izapide edo zerbitzuaren arloa
22. LIS_CLASEUN1	Prozedura, izapide edo zerbitzuaren atal-mota
23. LIS_TIOPRO3 (*)	Prozedura eta izapide-mota
24. LIS_CACC2	Prozedura, izapide edo zerbitzua eskuratzeko kontrola

(*) Prozedura-mota izapide, prozedura eta izapide-kudeaketentzako bakarrik definituko da

5.1.3 Gaurkotze-aldagaiak

13. LIS_TIPO_MOV	Mugimendu-mota
14. LIS_SUCESO_DEMO	Mugimendua sortzen duen gertaera
15. LIS_AREF	Informazioaren erreferentzia urtea (Gako nagusia)
16. LIS_ACTU	Gaurkotze-adierazlea
25. LIS_FENC	Informazioaren bilketaren aldia edo data

5.1.4 Etiketa-deskribapena

4. LIS_DIR_COD_ENT_TIPORG2 Erakunde publiko-mota

A	Udala
C	Partzuergoa
D	Foru aldundia
E	Udalez azpiko erakundea
F	Fundazioa
H	Eusko Jaurlaritza
L	Erakunde autonomoa
M	Mankomunitatea
P	Baltzu publikoa
R	Kuadrilla
W	Unibertsitate Publikoa

5. LIS_DIR_COD_ENT_TIPORG1 Erakunde publikoa zein entitate publikokoa den

A	Udala
C	Partzuergoa
D	Foru aldundia
F	Fundazioa
H	Eusko Jaurlaritza
M	Mankomunitatea
O	Partaidetutako beste baltzu publiko
R	Kuadrilla
W	Unibertsitate Publikoa

13. LIS_TIPO_MOV Mugimendu-mota

A	Alta
B	Baja
M	Aldaketa
P	Jarraitzen
Z	Ez da egokia

14.- LIS_SUCESO_DEMO Mugimendua sortzen duen gertaera

01	Sorkuntza
02	Desagertzea
03	Bat-egitea
04	Absortzioa
05	Desintegrazioa
06	Zatiketa
07	Berregituraketa
08	Bikoiztua
09	Okerra
99	Ez da egokia

15.- LIS_ACTU Gaurkotze-adierazlea

- 1 Azken gaurkotzea (Aldia edo bilketa-data ikustea)
- 0 Gaurkotzearen aurreko egoera: historikoa

17. LIS_TDESTB Hartzaile-mota

- 1 Pertsona fisikoak edo juridikoak (bereizi gabe)
- 2 Pertsona fisikoak
- 3 Pertsona juridikoak
- 4 Sektore publikoa
- 5 Erakunde publikoko berezko langileak
- 9 Ez da zehaztu

18. LIS_AMBESP Espazio-esparrua

- 1 Espainiatik kanpokoa
- 2 Ezpaina osokoa edo autonomia erkidego batzuen
- 3 Euskal Autonomia Erkidegokoa
- 4 Lurralde historikokoa
- 5 Udalerrri batzuen
- 6 Udalerrrikoa
- 7 Udalerrria baino lurralde eremu txikiagokoa
- 9 Ez da zehaztu

21. LIS_AREAPRO3 Prozedura, izapide edo zerbitzuaren arloa

- 01 Lehendakaritza eta Administrazioa
- 02 Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza
- 03 Elikadura
- 05 Merkataritza
- 06 Kontsumoa
- 07 Lankidetz
- 08 Kultura eta Aisia
- 09 Defentsa
- 10 Kirola
- 11 Ekonomia
- 12 Hezkuntza
- 13 Enplegua eta Prestakuntza
- 14 Euskara
- 15 Ogasuna eta Ondarea
- 16 Berdintasuna
- 17 Industria
- 18 Berrikuntza
- 19 Ikerketa
- 20 Justizia
- 21 Gazteria
- 23 Ingurumena
- 24 Herri Lanak
- 25 Parte-hartzea
- 27 Giza baliabideak

- 28 Osasuna
- 29 Herritarren Segurtasuna
- 30 Gizarte-zerbitzuak
- 31 Trafikoa
- 32 Garraioak
- 33 Turismoa
- 34 Hirigintza
- 35 Etxebizitza

22. LIS_CLASEUN1 Atal-mota

- 1 Izapiderik gabeko zerbitzu publikoa
- 2 Izapideren bat duen zerbitzu publikoa
- 3 Administrazio-prozedura
- 4 Izapide-Kudeaketa
- 5 Kontratugilearen profila
- 6 Ikastaroak
- 7 Lehiaketak, Sariak
- 8 Edukia/Informazioa
- 9 Bestelakoa

23. LIS_TIOPRO3 Prozedura eta izapide-mota

- 00 Izapiderik gabeko zerbitzu publikoa, ikastaroak, lehiaketak, sariak, edukiak eta bestelakoa
- 01 Laguntzak eta diru-laguntzak
- 02 Baimenak
- 03 Erregistroa
- 04 Zigorak
- 05 Erreklamazioak
- 06 Salaketak
- 07 Arbitraja
- 08 Ikuskapenak
- 09 Zergak eta tasak
- 10 Langileen kontratazioa
- 11 Kontratugilearen profila
- 12 Desjabetzeak
- 13 Aurrekontu publikoak
- 14 Ziurtagiriak eta bisak
- 15 Txartelak
- 16 Matrikulak, Kredituak, Baliozkotzeak, etab.
- 17 Zerbitzu-eskaera
- 18 Eskaera orokorra
- 19 Bestelako prozedurak eta izapideak

24. LIS_CACC2 Prozedura, izapide edo zerbitzua eskuratzeko kontrola

- 1 Bai
- 2 Ez

6. HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILEKO ESTADISTIKA OFIZIALEKO ATALEAN ESKURAGARRI DAGOEN BESTELAKO ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOARI BURUZKO AGIRI METODOLOGIKOAK ETA DATUAK

- 6.1** Erabilitako Administrazio Elektronikoaren terminoen **Glosarioa**.
- 6.2** Zerbitzu Publiko Elektronikoen Estatistika –ESPE2010- eta Sofistikazio Elektronikoaren Indizea –SOFEI2012- delakoaren **Fitxa eta Txosten Metodologikoak**.
- 6.3** Excel Fitxategiak: **ZPEE2010-Taulak Estatistikak_e.xls** -Zerbitzu Publiko Elektronikoen Estatistika –ESPE2010- eta Sofistikazio Elektronikoaren Indizea –SOFEI2012- **SOFEI2012-Taula_Estatistikak_e.xls** delakoaren datu-taula nagusienekin.
- 6.4** Zerbitzu Publiko Elektronikoen Estatistika –ZPEE2010- eta Sofistikazio Elektronikoaren Indizea –SOFEI2012- delakoaren bilketa egiteko **galdetegiak**.
- 6.5** Zerbitzu Publiko Elektronikoen Estatistika –ZPEE2010- eta Sofistikazio Elektronikoaren Indizea –SOFEI2012- delakoaren **prentsa-oharrak**.

Sarbidea:

[Herri Administrazio eta Justizia Sailaren Estatistika Ofiziala](#)